

Pentsamendua euskal nortasunaren alde

Joxe Azurmendik, *Pentsamenduaren historia Euskal Herrian* liburuan (2020), Erdi Arotik Aro Garaikidera euskal pentsalari, idazle zein agintariek, baita herritar xeheek ere, euskaldun izaten jarraitzeko edo euskaldun izateari uzteko antolatu dituzten erakunde akademikoen, sortu duten pentsamenduaren eta eratu dituzten kultur eta nortasun diskurtsoen azterketa egin zuen.

«Monasterioak izan dira, XII. mendera arte, Euskal Herriko kultur habia bakarrak». Dena den, «ez dirudi, ez dakigu behintzat, monasteriook inoiz eskola inportanteak izan dituztenik». Gainera, «Nafarroako monasterioetan, salbuespen bakanak salbu, kopia-lan oso gutxi egiten zen».

Erdi Aroan (XI-XV)

hainbat polo kultural bizkor sortu da [Nafarroako] erresuman [...]: gortea, monasterioak, zientzia arabiarraren itzultzaileak, juduak etab. Baina inoiz ez da lortu sare koherente bat. H. d., inoiz ez dira zentro horiek egiazko autonomia bat izatera eta elkarrekin lotzera iritsi.

Are gehiago, «Erdi Aroan egon dira Nafarroako errege eta erreginak, interes kultural handienetakoak ere, baina ez Euskal Herriko kulturarentzat».

Aro Modernoan (XVI-XVIII), higanoten (Iparraldeko protestante kalbinisten) inguruan sortzen diren gorabehera erlijioso-politikoen ondorioz, «batzuen espainol eta besteen frantsestasuna sustraituz joango da, euskaldunak geografikoki soilik baino sakonkiago erdibituz».

Ilustrazio garaian, XVIII. mendean,

euskarazko idazle eliztarrak ugaritzen dira Hegoaldean. Ez bedi pentsa, alabaina, azkenean 'Elizak' euskararen ardura ikasi due-nik. Ez da instituzioaren obra izan (deseuskalduntzearen fakto-

re bortitzenetakoa izaten jarraituko du), zenbaiten merezimendu indibidual hutsa baizik. [...] Larramendi kexu da, bere lana anitz jendek eskertzen diolako, eta «sólo entre jesuitas no encuentro uno de estos agradecidos».

Bakardadean aritu zen Larramendi. Hala ere, euskal nortasunaren, euskararen eta euskal kulturaren inguruko gaietan berritzailea izan zela esan daiteke.

Egi-egiaz, Larramendiren berritasuna ez dago hainbeste erabili di-tuen materialetan (denak tradizionalak), horiekin egindako planteamenduaren pathos politiko eta abertzalean baizik, argudiaketaren tonuan eta joeran (badirudi euskal pentsamenduaren historian behin eta berriro gertatzen dela, itxuraz elementu tradizionalekin planteamendu halere erradikal eta iraultzaileak egitea efektuetan). Larramendiren planteamendu guztia, izan ere, tradizioko elementu zaharrekin egina dago. Baina jadanik ez, lehenago bezala, Gaztelan eta koroan hobeto integratzeko intentzioan, frontalki alderantziz baizik, Gaztelatik eta koroatik desintegratu ahal izateko ideian.

Aro garaikidean (XIX), gerra karlisten ostean, «euskotarren ‘mila urteko’ tradizio forala ezabaturik», Sabin Aranak zera esan zuen: «Euskotarren aberria Euskadi da».

Azurmendiren azterketak erakusten du historian zehar Euskal Herriko agintariak, kultur zentroak edo pentsalari eta idazleak gutxitan agertu direla euskal kulturaren, euskararen eta euskal nortasunaren alde. Gure pentsamenduaren historian, etengabeak dira aukera galduak, axolagabekeriak, traizioak eta mendekotasunak.

2022tik 2024ra, Eusko Ikaskuntzaren baitan, *Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu* izenburua duen ikerketa burutu dugu. Ikerketaren ondorioetako bat da, XXI. mendera begira, euskal nortasunak errelatu berri bat behar duela; eta errelatu berri batek pentsamendu sendo bat behar du oinarrian. Azurmendiren lanak argi adierazten du pentsamendua sortzeko oso garrantzitsuak direla hezkuntza, liburu eta kultur ekoizpena, kultur gune eta sareak, agintarien inplikazioa, lurraldetasuna, kultur sortzaileak; tradizioan oinarria duten nortasun planteamendu erradikal eta iraultzaileak, eta nazio kontzientzia.